

ARTEA. Gasteizko Trayecto galeriak antolatu duen 'Espacios' proiektuaren parte da

Nortasunaren alde ezkutua du ardatz Pepo Salazarren instalazio berriak

'18591372-N' erakusketan bere nortasun agiria eta kode sekretuak jendaurrean eman ditu

Ivan Santamaria | GASTEIZ

Norberaren nortasun pribatua, gero eta gehiago, zenbakiak osatzen dute. Banketxeko kontu korrontea, sakelako telefonoa pizteko zenbakiak, kreditu txartelak, gizarte segurantzak eta abar. Eta, oroz gain, nortasun agiria. *18591372-N* agiriak jabe bat du, Pepo Salazar artista, eta zenbaki hori baliatu du egunotan Trayecto galerian duen instalazioaren izen modura.

Zenbaki pertsonal horiekin osatutako mural batetik abiatuta, identitateari buruzko gogoei bultzatu nahi izan du. «Datuek pertsona definitzen dute, eta definitu esaten dudanean, kontrolatu ere esan nahi dut», dio Salazarrek. «Hipererakusketa» ariketa bat dela uste du, artearen moldetik «subertsiotik gertu» dagoena. «Gaur egun aisialdia izatea ia subertsioa da; zer esanik ez, norberaren kode sekretuak aireratzea», arrazoitu du.

Muralaz gain, hiru marrazkirekin eta proiektzio batekin osatu du instalazioa. Sei minutuko bideo horretan, Salazar bera ageri da, bi su itzalgailu zabaldu eta lehen publiko zena ezabatzen du, bai zenbakiak eta bai espazioa bera ere, dena eremu pribatura itzularazteko. «Informazio jarioei buruz hitz egin nahi dut, prozesu batzuen argitasuna eta gardentasuna auzitan jarri», azaldu du Pepo Salazarrek.

Ekintza horrek artearen eta artistaren eginbeharraren metaforatzat du egileak. «Arteak, funtziorik badu, kontrako iritzia



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Pepo Salazar, Gasteizko Trayecto galerian.

eman eta moldeak apurtzea da. Gainera, artearen bidez arriskuren bat izan dezaketen ekintzak oraindik egin daitezkeela islatu nahi izan dut».

18591372-N Trayecto galeria antolatzen ari den *Espacios* proiektuaren barruan aurkeztu dute. Urtarrilaren 25a arte ikusi ahalgo da. Espazio publikoaren eta pribatuaren arteko al-

dea dela-eta kexu da Salazar: «Ez dago oso garbi zer den espazio publikoa eta zer pribatua, eta, argi ez dagoenez, batzuek etekina ateratzen dute».

Instalazioan arteak merkatu modura duen izaerari buruzko keinu bat gehitu du Gasteizko artistak. Bideoan jantzita daukan kamisetaren atzealdean bere ibilbidea idatzirik dago,

PROIEKTUAK

Arcora eta Hego Amerikara joango den bideo bat

Oso lanpeturik dabil Pepo Salazar. Trayecto inaugurazioa egin eta berehala, bideo sorkuntzako beste proiektu bat jarri du abian. Proiekturik hurbilenak, dena den, Madrilgo Arco ferriara eta Lisboara bere lana erakustera joatea izango da.

Apiril aldean Madril eta Hego Amerikan ikusi ahalgo den erakusketa bat aurkeztuko du. Beste bost artistarekin batera, *Bad Boys* prestatzen ari dira. Terrorismoari, bandalismoari, modari, diseinuari eta bortxakeriari aipamena egiten dioten bideoak osatuko dute. Gure Artean saritutako beste euskal artista batek, Jon Mikel Eubak, hartuko du parte proiektuan. «Euskal Herrian artista interesgarri asko gaude; jendeak badaki serio egiten dugula lanean», Salazarren irudiko.

musika taldeek birako kontzertuekin egiten duten antzera. Artearen munduko merkantilizazioari emaniko begiratu ironikoa dela aitortu du Salazarrek.

Urte ona biribildu du horrenbestez Pepo Salazarrek. Izan ere, Gure Artean sarietan argazkigintzako lehiaketa irabazi zuen, *Sarubande* izeneko lanari esker.

LITERATURA

Meabe, Txiliku, Igerabide eta Zubizarretaren lan bana eman du argitara Elkarrek

Erredakzioa | DONOSTIA

Haur literaturako Batela, Lamia eta Kuku sailetan, hurrenez hurren Jesus Mari Olaizola *Txiliku*, Miren Agur Meabe eta Patxi Zubizarretaren liburu bana eman berri du argitara Elkar argitaletxeak: *Amona Blasi eta herensuge-kumea*, *Joanes eta Bioletaren bihotza* eta *Markos kantinera*. Horretaz gain, Juan Kruz Igerabideren *Txan magoa hitz magikoen bila* ere argitaratu du Elkarrek.

Txilikuren *Amona Blasi eta herensuge-kumea* liburuak Tesa Gonzalezen ilustrazioak ditu. Herri batera hegan iritsitako herensuge bikote baten abenturak ditu kontagai liburuak. Etxe handi bateko telebista antenan egingo dute habia herensugeek.

Miren Agur Meaberen *Joanes eta Bioletaren bihotza* liburuak Joanes umearen eta Bioleta izeneko panpinaren arteko harremanen berri ematen du. Liburuko ilustrazioak Manuel Ortegak eginak dira.

Kantinera izan nahi duen mutikoa eta Txan magoa

Patxi Zubizarretaren liburuko pertsonaia nagusia Markos da, herriko jaietako danborradan kantineira izan nahi duen mutikoa. Mikel Valverderen ilustrazioekin lagundurik, helburu hori gauzatzeko bidean aurkituko dituen oztipoen berri ematen du *Markos kantinera* liburuan Patxi Zubizarretak.

Juan Kruz Igerabidek idatzi eta Julen Tokeroi ilustraturiko *Txan magoa hitz magikoen bila* liburuak Txan magoak hitz magikoak aurkitu ahal izateko bizi izandako abenturak ditu kontagai nagusi. «Txanek dio magoek liburuetan bakarrik aitortzen dituztela beren sekretuak», ohartarazten dio irakurleari liburuaren kontrazalak. «Hona, bada, Txanen lehenengo liburua. Irakurtzen duenak Txanen sekreturik handienak berri izango du».

Iñaki Ruiz de Eginok Kasimir Malevitxen omenezko bilduma osatu du

K. Berasain | IRUÑEA

Iñaki Ruiz de Eginok artista donostiarrak *Homenaje a Malevich* (Malevitxen omenaldia) bilduma grafikoa aurkeztu berri du Iruñeko Pintzel galerian. Errusiako artistaren *Karratu beltza* abiapuntu hartuta, 30 ale bildu dituen karpeta bat osatu du, lan serigrafikoa bere osoan.

Beltzak, zuriak eta grisak baliatu ditu Ruiz de Eginok forma geometrikoak osatzeko, eta koloreak eta lerroak uztartuz sortu duen unibertsoak ezinbestean Malevitx artistaren sormena dakar gogora.

Tradiziozko ikonoen marrazketan bide berriak ireki zituen Kasimir Malevitxek, eta 20ko hamarkadan XX. mendeko ikonoak esaten zitzaizkion marraz-

kiak egiteari ekin zion. Garai bateko kolore argiak ilundu egin ziren orduan, eta beltza eta zuria aski zituen bere proposamen estetikoak gauzatzeko. Ildo horretan, siluetak sinplifikatu joan zen, forma geometriko soilak egin arte.

Omenaldiak egitea gustuko duen artista

Karratu beltza da Malevitxen kreazioaren sinbolo goren, eta horretan oinarritu da artista donostiarrak bere azken lana osatzeko. Aurretik Jorge Oteizaren lana izan zuen aztergai. «Oteizaren omenezko bilduma osatu

nuen iaz, eta aurten Malevitxena egitea erabaki nuen. Geometria, karratua, beltza, zuria eta grisa: horietatik izan dira nire lanaren oinarriak», esan zuen Ruiz de Eginok bere bilduma ezagutarazteko ekitaldian.

Iñaki Ruiz de Eginok 1953. urtean jaio zen, Donostian, eta Zaragozako Arte Eskolan egin zituen ikasketak. Geroztik, sari anitz eskuratu ditu artistak, eta marrazkia eta eskultura izan ditu ardatz bere obran. Urteotan harreman estua izan du hemengo zein nazioarteko artistekin, eta egin dituen erakusketak ere asko izan dira.